



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko azaroaren 10ean

114 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako 2000ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Ubarmin klinikari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (12. or.).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako 2000ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarreko Erregelamenduko 154 artikulua xedatutakoarekin bat, Nafarroako 2000ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako 2000ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

I. Helburua (2. or.).

II. Lanaren norainokoa eta mugak (2. or.).

II.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokorren osaera (2. or.).

II.2. Lanaren norainokoa (5. or.).

II.3. Mugak (6. or.).

III. Iritzia, iruzkinak, ondorioak eta gomendio orokorrak (6. or.).

III.1. Iritzia (6. or.).

III.2. Iruzkinak (8. or.).

III.3. Gomendioak (10. or.).

I. HELBURUA

Indarreko araudiari jarraituz eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2000ko abuztuaren 27an harturiko erabakia betez, Kontuen Ganbarak txosten hau egin du, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea Nafarroako 2000ko aurrekontu orokorren betetzeari buruzko egoera-orriak behar bezala agertzen duen aldi horretan izandako jarduera.

- Foru Ogasunaren 2000ko abenduaren 31ko ondare-egoera arrazoizkoa ote den, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz, zeinak aurreko ekitaldikoekiko uniformeak baitira.

- Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezotasun printzipioari lotua egon ote den, arreta bereziz aztertuz kontratazioa eta barne kontrola.

- Foru Ogasunaren 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

- Nafarroako Gobernuaren oroit-idazkian agertzen diren datu eta iruzkinak arrazoizkoak eta koherenteak ote diren.

- Kontuen Ganbarak Nafarroako Kontu Orokorrei buruz aurretik eginiko fiskalizazio txostenetan adierazitako gomendioen betetze-maila.

Nafarroako Gobernuak eginiko jarduera edo eginkizun batzuei atxikiriko baliabide publikoen kudeaketan erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailari buruzko ondorio batekin osatuko da iritzi hori, txosteneko II. epigrafean adierazitako mugak kontuan izanik.

II. LANAREN NORAINOKOA ETA MUGAK

II.1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN OSAERA

Hurrengo orrialdean txertaturiko taulan ikus daitekeen bezalaxe, Foru Komunitateko Administrazio Orokorren osaera honako hau da:

- Administrazio sektore publikoa, honako entitate hauek osatua:

- a) Nafarroako Gobernuko departamentuak (kopurua: 10).

b) Administrazio izaerako erakunde autonomoak:

1. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI).
2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (ONNOZ).
3. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI).
4. Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI).
5. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI).
6. Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa (EVENA).
7. Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI).
8. Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NEZ).
9. Nafarroako Zerga Ogasuna (NZO).

- Enpresen sektore publikoa. Hori osatzen duten enpresak publikoak dira, eta enpresa horietan Nafarroako Gobernuak ehuneko 50 edo gehiagoko kapital-jabetzako ehuneko dauka, zuzenean edo zeharka. 2000n, sektore hori 30 enpresa publikok osatzen dute.

- Zuzenbide publikoko enteak; hain zuzen ere, honako hauek:

- a) Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa.
- b) Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbara.
- c) Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Ogasun Publikoari buruzko Legeak ez du ezarritzen zuzenbide publikoko ente horiek Kontu Orokorretan sartuko direnik. Hala ere, gure gomendioei jarraituz, lehenbiziko bien kontuak Kontu Orokorretan sartu dira, baina ez dira Unibertsitateko kontuak sartu, ez baitzeuden eskuragarri. Kontuen Ganbara Unibertsitateko kontuen fiskalizazioa egiten ari da, eta txosten bereizi batean argitaratuko ditu lan horren emaitzak.

Azpimarratu behar dugu, bestalde, sektore publikoak, fundazioen moduan, ente berriak sortu dituela.

- Administrazio korporatiboa, besteak beste kontseilu arau-emaileek osatzen dutena, ez da kontuetan sartzen.

- Gainera, Nafarroako Gobernuaren kontuetan Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen kontuak ere sartu dira.



II.2. LANAREN NORAINOKOA

Nafarroako Gobernuak argitaraturiko Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrek lau liburukitan aurkezten dira:

a) Bi liburukitan agertzen dira enpresa publiko-etako, Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Kontuen Ganbarako, Merkataritza Ganbararen eta Suhiltzaileen Partzuergoko kontuak eta auditoretzak.

b) Liburuki batek honako hau biltzen du:

1) Gastuak:

- Gastuen sailkapena, departamentuka.
- Gastuen sailkapena, programa eta proiektuka.
- Gastuen betetzea, aurrekontu-lerroka.
- Gastuen betetzea, kapitulu eta artikuluka.
- Erakunde autonomoetako gastuen betetzea.
- Gastuen betetzea, departamentu eta kapituluka.
- Erresulten sortzea.
- Aurreko urteetako erresulta-mugimenduak.

2) Dirusarrerak

- Dirusarreren sailkapena departamentuka
- Dirusarreren betetzea aurrekontu-lerroka.
- Dirusarreren betetzea kapitulu eta artikuluka.
- Erakunde autonomoetako dirusarreren betetzea.

3) Baturak eta saldoak egiaztatzeko balantzeak.

c) Laugarren liburukiak jasotzen du ekitaldiko oroit-idazkia, zeina txosten honekin batera eranskin gisa agertzen baita. Bertan, honako hauek daude:

1) Dokumentuak:

- Gobernuaren aurrekontuaren likidazioa 2000ko ekitaldirako, sailkapen ezberdinetan: ekonomikoa, organikoa, programakakoa eta funtzionala.

- 2000ko balantzearen eta emaitzen kontuaren berri ematen da behar den birsailkapena egin ondoren, 1994an onetsiriko Sektore Publikoaren Kontabilitateko Plan Orokor berriaren eskemei eta terminologiari jarraituz. Hala ere, aurkezpen-mota berri hori ez da ez kontabilitate-aplikazioa aldatzearen ondoriozkoa ezta kontabilitatea Plan berrira egokitu izanaren ondoriozkoa ere.

- Finantzei eta ondareari buruzko adierazleen azterketa.

- Egoera-balantzeari eta emaitza-kontuari buruzko iruzkinak.

- Abalei buruzko informazioa.

- Sozietate publikoen kontuei buruzko laburpen bat.

- Etorkizuneko ekitaldien kontura harturiko konpromisoen egoera.

2) Oroit-idazkia:

Hertsiki oroit-idazkia denak honako hauek hartzen ditu:

- Aurrekontuen betetzeak dituen alderdirik aipagarrienak.

- Betetzearen azterketa, kapitulu ekonomikoka.

- Aurrekontu-betetzearen azterketa, sailkapen funtzionalaren ikuspegitik.

- Azterketa, departamentuka (programakako azterketa barnean hartzen du).

- Gastuen eta dirusarreren bilakaera 96-99 tartean.

- 1999ko ekitaldiko aurrekontu-aldaketak.

- Apendize gisa, erakunde autonomoen eta zuzenbide publikoko erakundeen balantzeak eta emaitza-kontuak.

Oroit-idazki horretako sarrerak hartzen ditu Foru Administrazioaren antolaketa, Kontuen aurkezpenaren oinarriak eta horiek aurreko ekitaldiarekin alderatzearen ondoriozko iruzkin bat.

Gure lanaren norainokoak aurreko lerrokadetan deskribaturiko Nafarroako Kontu Orokorren analisia eta zentsura hartzen ditu barnean, eta Gobernuak Kontu Orokorrei buruz eginiko oroit-idazkia eta apendizeak ere aztertzen dira: eginiko iruzkinak berrikusten dira, eta aipatzen diren datuek alderdirik garrantzitsuenetan daukaten barne koherentzia ere bai.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatu-ko Kanpoko Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoretzako printzipio eta arauak" aplikatu dira.

Kontabilitateko egoera-orriak aztertzean, behar ziren laginak hartu dira, eta Nafarroako Kontuen Ganbara honek eginiko beste lan hauetako informazioa ere erabili dugu:

- "Justizia Administrazioaren aurrekontu programa".

• “Iparraldeko ingurubidea bikoiztea (Artika eta N-121 artean, Atarrabian)”

Lan horiek txostenetan jaso dira, eta berezita argitaratu dira.

Halaber, Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuko Barne Auditoretza Atalak eginiko txostenak erabili ditugu.

Antolaketa eta kontrola hobetzeko komenigarritzat jotzen diren iruzkin eta gomendioez hornituta dago txostena.

Halaber, eranskin batean bildu da Kontuei buruzko oroit-idazkia, Nafarroako Gobernuak egina. Kontuei buruzko informazioa osatzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kontuak eta zergen deklarazio erantsiak ere jaso ditugu txostenean.

Azaldu dugun lanari dagozkion iritzia eta gomendio orokorrak txosten honetako III. epigrafean sartu dira.

II.3. MUGAK

Lan honek mugak dauzka, baliabide publikoen kudeaketan erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailaren egiaztapen-lana aztertutako programa zehatz bakoitzaren garapen-neurriaren, bere kudeaketa-mailaren, eskuragarri dagoen informazioaren eta adierazleen kalitatearen menpekota baita. Beraz, ezin dugu iritzi orokor bat eman Nafarroako Gobernuak bere kudeaketan erdietsitako eraginkortasun, ekonomia eta efizientziari buruz.

Azterketa-lana martxotik irailera bitartean egin du lau auditoretza-teknikarik eta auditore batek osaturiko lan-talde batek. Talde horrek aldi batean prestakuntza teknikari baten eta praktiketako ikasle baten laguntza izan dute, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen etengabeko laguntza izateaz gainera.

Nafarroako Gobernuko langileei eta, bereziki, Ekonomia eta Ogasun Departamentukoei, eskerak eman nahi dizkiegu gure lana egiteko eman duguten laguntzarengatik.

III. IRITZIA, IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

III.1. IRITZIA

Eginiko lanaren norainokoa kontuan izanik, egoera-balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren likidazioa eta 2000ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren oroit-idazkia aztertu

ditugu. Horiek txosten honekin batera eranskin gisa doaz, eta Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna da horiek prestatzea eta horien edukia.

Gure lanean eskuarki onarturiko auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu ditugu, baldintzak eta lortu beharreko helburuak kontuan izanik.

Sarrera gisa, esan nahi genuke, 1999. urteko ekitaldiari buruzko txostenean esan genuen bezala, Nafarroako Gobernuaren barne kontrolako sistemak antzera daudela, batez ere kontu-hartzearen aldi baterako araubidearen indarraldiari, Kontratazio Batzarraren jardura eskasari eta hainbat kontrolako prozedura sistematiko, hala nola aldiroko kontabilitate egiaztapen eta gurutzatzeak, aplikatu gabe uzteari dagokienez.

Barne kontrolaren ahultze horrek eraginik izan dezake finantza-egoeren fidagarritasunean eta legezketasuna betetzeko bermearen mailan; bai kontrolatzen da, ordea, aurrekontu-kreditu nahikorik badagoen eta gastua egiten duen organoak horretarako eskumenik baduen.

Gure jardueraren ondoriozkoa da jarraian agertzen dugun iritzia.

III.1.1. 2000ko abenduaren 31ko egoera-balantzeari dagokionez

Nafarroako Gobernuaren egoera-balantzeko saldoak agertzen dituzte Foru Ogasunak 2000ko abenduaren 31n duen ondare-egoeraren alderdirik aipagarrienak, honako salbuespen hauekin:

- Ibilgetua.

Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun higigarrien inbentarioa osatu gabe egoetaren eta ondasun higieziari buruz egin dagoen inbentarioa horien kontabilitate-balioekin bat ez etortzearen ondorioz, ezinezkoa zaigu saldo horien onargarritasunari buruzko iritzia ematea.

- Zordunak.

Tributu-zordunen saldoen berrikuspen sistematikorik ez denez egin, eta ez direnez erkatu tributu-fitxategiak eta kontabilitatekoak, ezinezkoa zaigu saldo horien onargarritasunari buruzko iritzia ematea.

- Gorabeherak.

Ez dira kontuan hartu Nafarroako Gobernuko langile funtzionarioen pentsio-sistema indardunak sorrarazitako betebeharrak aktuarioetatik eratorritako gorabeherak.

Halaber, aipatu nahi dugu ez dela gaurkotu 2000-2005 aldirako Estatuarekiko Hitzarmen Eko-

nomikoa. Horrek eragina izan lezake etorkizuneko aurrekontu-likidazioetan.

III.1.2. 2000ko aurrekontuaren betetzeari dagokionez

2000ko aurrekontuaren likidazioan jasotako gastu eta dirusarrerek behar bezala agertzen dute Nafarroako Gobernuak aldi horretan eginiko jarduera, salbuespena izanik aurreko epigrafean aipatu den tributu-zordunen egoerak aurrekontu-betetzean izan litzakeen efektuak, zenbatetsi ezinena baita.

“BEZaren zuzeneko kudeaketa” motako dirusarreraren artean, 3.319 milioi pezetako dirusarrera bat izan zen, berez beste tributu-administrazio bati zegokiona. Zuzenketa egiterakoan, “BEZaren doikuntza” izenekoari egotzi zitzaion “BEZaren zuzeneko kudeaketa” izenekoari egotzi partez. Hala eta guztiz ere, horrek ez du eraginik dirusarreraren guztizko saldoan.

Gobernuak, aurreko ekitaldietakoekin koherenteak diren irizpideak aplikatuz, gastuen aurrekontuan 3.029 milioi pezeta jaulki eta kitatu dituela islatu du, 20.000 milioi pezetako amortizazioa eta 16.971 milioi pezetako jaulkipena izan baita.

III.1.3. Legezketasun printzipioaren beteetzea

Kontu-hartzaitzaren kontrolerako aldi baterako araubideak aurretiko tramite batzuk erraztu egiten ditu; tramite horiek geroko kontrol batez osatuko dira, kontu-hartzaitzak eginen duen langiketa bat dela medio. Txosten hau idazteko garaian, behin-behineko zirriborro-fasean zeuden lau departamentutako geroko kontrolari buruzko txostenak; beste hiru departamenturenak, berriz, egiten ari ziren; alabaina, gainerako departamentuenak falta ziren.

Hala eta guztiz ere, ez da araudi bat edo irizpide batzuk prestatu txosten horien ondorioen araberako hartu beharreko neurriak buruz.

Aztertutako laginean, ez dugu aurkitu Nafarroako Gobernuaren jarduera ekonomiko eta finantzarioaren legezketasun printzipioaren aurka jarduketarik.

III.1.4. Foru Ogasunaren finantza-egoera

Hasierako aurrekontua 358.000 milioi pezetakoa izan zen; aurrekontu bateratua, berriz, 399.000 milioi pezetakoa. Betetze maila ehuneko 95koa da gastuetan eta ehuneko 96koa dirusarreretan.

2000ko ekitaldian, betetako ehunekoari eusten zaio bai gastuetan, bai dirusarreretan. Azken

horien artean, zuzeneko zergak ehuneko 111n bete dira; zeharkako zergak berriz, ehuneko 102an. Bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarrera guztien ehuneko 91 egiten dute.

Ekitaldia ixterakoan, 966 milioi pezetako aurrekontu-superabita gertatu da. Aurten, beste behin, zorpetzea gutxitu da –hain zuzen ere 3.029 milioi pezetatan–; aurreikusitakoa, ordea, zorra 2.872 milioitan igotzea zen. Beraz, ez da zor-jaulkipenik egin behar izan.

- Aurrezki gordina (dirusarrera eta gastu arruntaren arteko aldea) 78.727 milioi pezetakoa da; nahikoa, beraz, 67.589 milioi pezetako kapital defizitari (zeina kapitalaren dirusarreraren eta gastuen arteko aldea baita) aurre egiteko.

- Ogasuneko Estatu Idazkaritzak eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak izenpeturiko Aurrekontuen Kontsolidazio Esparrua bete egin da. Esparru horretan aurreikusten zen 2000n zorpetzearen gehikuntza 2.872 milioikoa izanen zela, eta ekitaldiaren amaieran zor bizia 140.1000 milioikoa izanen zela; errealtatean, zorpetzeak 3.029 milioiko beherakada izan du, eta zorra 107.621 milioikoa da.

Ondorioz, Foru Ogasunak bete egin ditu, 2000n, Aurrekontuen Esparruan ezarritako betekizunak.

III.1.5. 1999ko ekitaldiko oroit-idazkia

2000ko ekitaldiko oroit-idazkia eranskin gisa gehitu zaio txostenari, eta behar bezala islatzen ditu Gobernuaren finantza- eta ondare-egoera, aurrekontu-betetzea –saikapen bakoitzean– eta enpresen sektore publikoko eta erakunde autonomoiei buruzko datu muntadunak.

Aurreko ekitaldiaren aldean, zenbait alderdi gehitu dira; esate baterako, Merkataritza Ganbararen eta Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren finantza-datuak, bai eta Nafarroako Gobernuaren kontabilitate-magnituden azterketa ekonomiko eta finantzarioa.

III.1.6. Aurreko txostenetan Kontuen Ganbarak emandako gomendioen betetzea.

Kontuen Ganbararen gomendioak betetzeko erritmoan ezberdintasun nabarmenak daude: ez dago alde aurretiko sistematika bat Nafarroako Gobernuak haiek ezartzeko.

2000n Tributuei buruzko Lege Orokorra onetsi zen, eta lan berezi bat egin zen BEZa itzultzeko zeukaten hartzekodunei buruz; Pentsioei buruzko Lege proiektua onesteko dago, ordea. Bestalde, kontu-hartzeari buruzko arauak behin-behinekotasunean darraite. Gainera, aipatu beharrekoa da

lehentasunezkoak direla zordunen saldoei buruzko berrikuspen sistematikoa, kudeaketaren alderdi berezkoa baita, eta ekitaldiko otoit-idazkian ondare-masari buruzko informazioa zabaltzea, bai eta ibilgetuari buruzko zifrak ondasunei buruzko inbentarioaren arabera egokitzea ere.

Kontabilitate sistema berria, GE'21, erabat ezartzeak lagungarri suertatu behar du Ganbarahonen gomendio nagusiak bete ahal izateko.

III.1.7. Eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia

II. epigrafean azaldutako mugak eragotzi egiten digu 2000ko ekitaldiko aurrekontu-betetzean oro har erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiari buruzko balioespen orokorra egitea. Dena den, afera hori zaila da balioesten, Foru Gobernuak egiten dituen jarduerak askotarikoak eta konplexutasun ezberdinekoak direla gogoan izaten badugu.

Aurrekontuetako oroit-idazkian, departamentuz departamentuko aurrekontu-betetzearen analisian, aurrekontu-programa batzuen betetzeari buruzko iruzkin batzuk ere biltzen dira.

Programa horiek ez dute tratamendu bera: oro har, aurrekontu-betetzeari buruzko datuen berri ematen da; beste batzuetan, eginiko jarduerari buruzko datuak ere eransten dira; eta, batzuetan, helburu kuantitatibo eta kualitatiboen betetzea balioesten da.

Kontu-hartze Zerbitzuak eginiko ahalegina gorabehera, ezin izan da lortu departamentuek beren jarduerari buruzko laburpen bat homogeneotasunez bidaltzea, hain zuzen ere eraginkortasunari, efizientziari eta ekonomiari buruzko balioespena errazteko.

Horrek eskatzen du aurrekontua prestatzen denetik, helburu eta adierazle egiazkoak aurkeztu behar izatea; gero, helburu eta adierazle horiek bai kudeaketan, bai emaitzen azalpenean erabili ahal izanen dira.

Bai ohartu gara, modu partzialean bada ere, departamentu batzuetan helburuen betetzeari buruzko balioespen bat sartu dela.

III.2. IRUZKINAK

III.2.1. Kontabilitate Sistema

2001. urteko ekitaldian, "GE 21" izeneko kontabilitate sistema ezartzen hasi da; horren helburua da Nafarroako Gobernuaren kudeaketa eta informazio ekonomiko eta kontabilitatezkoa hobetzea, aurreko "SGEF" sistema utzita. Logikoaenez, 2001. urteko kontuei buruzko txostena egiterakoan aztertuko dugu sistema hori.

Bestalde, gogorarazi behar da, 2002. urteko ekitaldian euroa sartuko dela pezetaren orde; hori dela eta, kudeaketa guztiak moneta berriaz egin beharko dira. Nafarroako Gobernu bere programak egokitzen ari da errealitate berri horri egokitzeko.

III.2.2. Kontratazioa

Kontratuei buruzko Foru Legeak 1998ko abuztuaren 1ean indarra hartu ondoren, lege horretako oinarritzko puntu batzuk garatzeko legeak berak ezarritako zenbait epe ez dira bete; adibidez, Toki Administrazioari buruzko Foru Legea Kontratuei buruzko Foru Lege berriari egokitzuz toki entitateetako kontratazioaren araupetzea egitea, edo Administrazio Kontratazioko Batzordearen osarearen, antolaketaren eta eginkizunen araupetzea egitea. Izan ere, batzorde horrek oraindik ere ez ditu betetzen Kontratuei buruzko Foru Legeak Nafarroako administrazio publikoen kontratazioaren arloan esleitu zizkion kontsulta, aholkularitza eta kontrol eginkizun garrantzitsuak.

Bestalde, legeko lehen xedapen gehigarrian hainbat esparrutarako (bermeak eratzea, kontratistak sailkatzea, baldintza-orriak onestea, lizitazio-iragarkiak eta abar) aurreikusitako zenbait erregelamendu ez dira oraindik onetsi.

Adierazi diguten bezala, Ondare Zerbitzuak lehenbiziko tramiteak egin ditu kontratuei buruzko lege proiektu berria prestatzeko.

Ondare Zerbitzuak Kontuen Ganbarari igorritako datuetatik ondorioztatzen denez, Nafarroako Gobernuak 2000n 914 kontratu sinatu zituen, eta horien guztizko zenbatekoa 15.709 milioi pezetakoa izan zen. Hona:

Departamentuen arabeko guztizko kopuruak

Departamentua	Hornidura	Obrak	Laguntza	Esleipenaren prezioa
Lehendakaritza	46	3	68	1.628.874.475
Toki Administrazioa	0	7	6	134.088.912
Gizarte Ongizatea	4	9	25	647.180.054
Industria	0	0	8	48.829.875
Ingurumena	0	0	59	332.944.004
Hezkuntza eta Kultura	133	43	32	1.971.300.396
Osasuna	194	16	44	2.678.391.009
Herrilanak	5	34	52	6.572.134.413
Nekazaritza	0	5	2	847.799.610
Ekonomia eta Ogasuna	112	2	5	847.258.321
Guztira	494	119	301	15.708.801.069

III.2.3. Hitzarmen Ekonomikoa

2000n Estatuko karga orokorretara eginiko ekarpena 59.550 milioikoa izan da; hau da, aurreko urtean baino 333 milioi gehiagokoa.

Gaurkotzeke dago bosturteko berriaren oinarri-ekarpena: 2000.ekoari dagokio.

III.2.4. Abalak eta arriskuak

Eraturiko abalak, 5.391 milioikoak izatetik, 2000n 6.482 milioikoak izatera pasa dira. Aldaketa horren zergatia dira krisialdian dauden enpresei dagozkienek izan duten 408 milioiko beherakada eta "I+G"ari dagozkionek izan duten 1.498 milioiko gorakada. Krisialdian dauden enpresei eginiko abalen zenbatekoa jaitsi da, 118 milioi pezetako konpromisoak bete direlako eta 290 milioiko abalak ere exekutatu direlako.

III.2.5. Erakunde autonomoak

Nafarroako Gobernuak administrazio-izaerako bederatzia erakunde autonomo dauzka, eta haien aurrekontu-likidazioa Gobernuarenean sarturik dago.

2000n, zortzi erakundek betetzen dituzten gastuetuek –Nafarroako Tributu Ogasunaren kontu bereziak ez baitira aurkezten– 107.566 milioi pezeta egin zuten; dirusarrerek, berriz 5.903 milioi pezeta egin zuten. Gastuen ehuneko 75 Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagozkio eta diru-sarreraren ehuneko 45 Nafarroako Enplegu Zerbitzuari

III.2.6. Enpresen sektorea

Nafarroako Gobernuak 30 enpresaren kapitalean dauka parte-hartze maioritarioa (zeina ehuneko 50ekoa edo gehiagoko parte-hartzea baita). Izan ere, azken urtean Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, SA eta Start Up Capital Navarra, SA sartu dira sektore publikoan; Magnesitas Navarras, SA enpresa, ordea, sektore publikotik kanpo geratu da.

Haien auditoretzetan hauxe ikusten da:

- Hogeitan iritzia aldekoa da.
- Zazpik aldeko iritzia daukate, salbuespenekin (Cetenasa, Riegos de Navarra, Nasuinsa, Potasas de Navarra, Nafinco, Tracasa eta Agencia Navarra de Innovación Tecnológica).
- Potasas de Subiza enpresaren kasuan ez da iritzirik adierazi, likidazioan dagoelako.
- Ez da Soles Systemsi buruzko auditoretzarik egin, desegite-fasean dagoelako, ez eta Sodexnari buruzkoa ere.

Irabaziak izan dituzten enpresen artean Aude-nasa –2.099 milioi pezeta– eta Vinsa –468 milioi pezeta– daude; galerak izan dituztenen artean, berriz, Saldosa –149 milioi pezeta– eta Nafinco –83 milioi pezeta– aipatu behar dira.

Langile-kopurua 1.076koa da, eta langilerik gehien duen enpresa Tracasa da, 230 langile baititu.

III.3. GOMENDIOAK

Jarraian, hainbat gomendio agertzen dira, egitza lanaren ondoriozkoak, eta horien artean sarturik daude beste ekitaldi batzuetan eginak izanik oraindik bete gabe daudenak:

- *Ibilgetuko kontabilitate-saldoak berrikus eta bahetu bidez, eta behar diren prozedura administratibo eta kontabilitatekoak ezar bidez bermatzeko saldo horiek Nafarroako Gobernuak jabetzan duen izaera horretako ondasun-multzoa uneoro behar bezala islatzen dutela.*

Zehazki, ibilgetuko kontabilitate-saldoak ondasun higiezin inbentariotik eratorritakoekin bat etortzeko sistema bat ezarri beharra dago, eta ondasun higigarriak ibilgetuan behar bezala balioetsiak izan daitezen egin beharreko jarduketak definitu behar dira.

- *Sistematikoki berrikus bidez, abenduaren 31ko datarekin, zordunen kontuetako saldoak; bereziki, saldo hartzekodunak dauzkaten kontuetakoak. Halako moldez non, ekitaldiaren amaieran besterik ez bada ere, sistematikoki egiazta dadin kontabilitate-datuak tributu-fitxategietan dauden saldo indibidualekin bat datozela, eta eginiko berrikuspenaren konstantzia utziz. Aldi berean, tributuetako saldoak egiazko saldoak direla eta ekitaldiari dagozkion tributu-aitorpen edo likidazio guztiak erregistratu direla egiaztatu behar da. Egiaztapen horretarako, esparru honetan diharduten unitate guztien koordinazioa beharrezkoa da; hau da: diru-bilketarena (CAT), tributu-kudeaketarena, ogasun-kudeaketarena eta kontabilitatearena.*

Laburbilduz, beharrezkoa da zordunak kudeatzen aritzen diren estamentu guztiek beren jarduerak koordinatzea eta ez bakoitzak bere aldetik lan egitea.

- *Egungo pentsio-eredutik eratorritako betebeharrak aktuarialak zenbatets bidez eta finantza-egoerarako orrietan erregistra bitez.*

- *Erregelamendu berriaren ondoriozko kontuhartzaitzako ereduaren behin-behinekotasunarekin bukatzea, barne-kontrol egokia bermatzeko.*

Puntu horri dagokionez, azpimarratzekoa da egin beharreko ondorengo kontrolek burututa egon behar dutela kontu orokorrak bukatzerako, iritsitako ondorioak barnean sartu ahal izateko. Halaber, zehaztu behar da zein neurri hartuko diren geroko kontrol-txostenetan ateratzen diren ondorioak direla eta.

- *Berrito ere errepikatzen dugu beharrezkoa dela Kontratazio Batzordeak kontratazio publikoa*

ren kontrol eta aholkularitzari dagokionez arau-diak esleitzen dizkion eginkizunak betetzea.

- *Eskuratu beharreko informazioa hobetzen duten datuak ekitaldiko oroit-idazkian sar bitez. Adibidez: zerga-aitorpen metatuak, gorabeherak, gastu fiskalei buruzko aurreikuspenen jarraipena, saldoen azterketa xeheagoa eta zordunen bilakera.*

- *Ogasun Publikoari buruzko Legea gaurkotzea, arauak errealitate ekonomiko berriari egokituz; horrenbestez, Kontu Orokorreran zein organismo, publiko nahiz pribatu, sartu behar diren zehaztea.*

Horri dagokionez, interesgarria iruditzen zaigu aipatzea beste erkidego batzuen aurrekontu-arauetan ondokoa aipatzen dela: "Aurreko artikuluetan sartzen ez diren partzuergo, elkarte, ekimen publikoko fundazio pribatu eta nortasun juridiko berekia duten gainerako entitateak, non Erkidegoaren Administrazioak zuzeneko edo zeharkako ordezkariak handiena daukan, artikuluhonetan aurreikusitako finantza-kontrolaren mende geratuko dira.

Ulertu behar da Erkidegoko Administrazioak ente horietan ordezkariak handiena duela zuzendaritza-, administrazio- edo zaintza-organoetako kideen erdia baino gehiago izendatzeko gaitasuna duenean –zuzenean edo bere erakunde publiko eta enpresen bitartez–, edo bestela kasuan kasuko entea sortzeko edo haren baliabide berekiak eratzeko kapital handiena jarri duenean".

- *Departamentuek euren kudeaketan lorturiko eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren azterketa gehitu behar diote oroit-idazkiari. Horretarako, honakoak behar dira:*

a) *Aurrekontuak prestatzea geroko balioespenera bideratuko duten adierazle eta helburuak erabiliz.*

b) *Programei buruzko balioespen orokorra, eraginkortasunaren, efizientziaren, ekonomiaren eta departamentuaren kudeaketaren ikuspegitik eginikoa.*

c) *Informazio hori herritarrari modu homogeneoan eskaintzea ahalbidetzen duen eredu bat taxutzeara.*

d) *Dagoen informazioa ekitaldiari buruzko oroit-idazkian sartzea eta ez bakarrik kasuan kasuko zerbitzu edo departamentuko oroit-idazki partzialetan.*

- *Zalantza ekonomikoko egungo egoeran, are beharrezkoago eta presakoagoa da Nafarroako Gobernuak gastu-politika eta -programa guztiak*

sistematikoki berrikustea, zeren eta gaurko superabitak, funtsean, dirusarreraren hazkuntza handiagoarengatik lortzen ari baitira.

- Kontratazioen proposamen ekonomikoak balioestean, balio gehiago ematen zaio batez bestekotik hurbilago dagoen prezioari merkeenari baino. Gure ustez, irizpide hori berrikusi beharra dago, ez baitator bat ekonomia printzipioarekin.

- Barne Auditoretzaren Atalak egiten dituen txostenetan eta kontu-hartzeko geroko kontroletan ematen diren gomendioak aplikatzen joateko sistema bat ezartzea.

- Kontaketa-aktak eta banku-adosteak esku hartzen duten guztiek sinatu behar dituzte.

- Estatuarekin Hitzarmen Ekonomikoaren gaurkotzea negoziatu behar da.

- Ezar bedi esparru juridiko bat, halako moldez non, esparru-arau izaeraz, jarduera publikoari begira Foru Komunitateak sor ditzakeen entitate-motak arautu eta honako hauek zehaztuko dituen: horiek sortzeko arrazoiak, euren araubide juridikoa eta Administrazio orokorrarekin izanen duten harremana (mendetasuna, haien jardueretan kontu-hartzaile aritzea, kontuen berri ematea eta abar).

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ubarmin klinikari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Ubarmin klinikari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Ubarmin klinikari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (12. or.).
 - II.** Helburua (13. or.).
 - III.** Norainokoa, metodologia eta mugak (13. or.).
 - IV.** Iritzia (13. or.).
 - IV.1. Aurrekontu betetzeari buruzkoa (13. or.).
 - IV.2. Legezketasun printzipioa betetzeari buruzkoa (13. or.).
 - IV.3. Eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiari buruzkoa (13. or.).
 - V.** Aurrekontu-betetzea (14. or.).
 - VI.** Aurrekontu-betetzeari buruzko azterketa (15. or.).
 - VI.1. Gastuak (15. or.).
 - VI.2. Dirusarrerak (19. or.).
 - VII.** Eraginkortasuna eta efizientzia (10. or.).
- Eranskina:** Programaren deskribapena. 1999ko aurrekontua (25. or.).

I. SARRERA.

Ubarmin Klinika ekimen pribatuz sortu zen. Zenbait gorabeheraren ondoren, ordea, sare

publikoan sartu zen. Nafarroak osasun arloko eskumenak eskuratu ondoren, Foru Komunitateko osasun sarearen zati izatera pasatu zen klinika, kirurgia ortopedikoan eta gaixoen errehabilitazioan –ortopedikoan eta neurologikoan– espezializatuturik. Espezializazio hori gorabehera, ez ditu tratamendu traumatologiko guztiak ematen, ospitale guztietan ematen baitira halakoak. Esate baterako, haurren traumatologia arazoei Bideko Ama Birjina Ospitaleko ama eta haurrentzako atalean ematen zaie arreta, eta traumatologikoez gainerako edozein sintoma daukaten gaixoei gainerako zentroetan eman behar izaten zaie arreta, hain zuzen ere Ubarmin Klinikaren espezializazioaren ondorioz. Ubarmin klinikak ez du larrialdi zerbitzurik.

1999an, Ubarmin Klinikak 125 ohe zeuzkan eta 3.542 ospitaleratze izan ziren.

1999ko ekitaldian, 2.488 milioi pezetako aurrekontua zeukan; haietatik 1.511 milioi –ehuneko 62– langile gastuei dagozkie. Lan egiteko, 1999ko programen deskribapenean jaso den bezala, ondoko langileak zituen:

Sendagile espezialistak	23
Osasun langileak	104
Osasun langileak, titulurik gabeak	95
Administrariak	31
Zerbitzu orokorrak	44
Zuzendaritzako langileak	4
Guztira	301

1999ko aurrekontuko programak –eranskin gisa bildu dugu– ondoko alderdiak azpimarratzen ditu:

- Foru Komunitateko ospitaleen sareko kudeaketa-kontratuak dira esleituriko funtzioak betetzeko zentroak planteatuta dauzkan helburuak, ekin-tzak eta baliabideak hobekien azaltzen dituzten dokumentuak.

- Osasun zerbitzuen finantzaketa- eta hornikuntza-funtzioak arian-arian bereizten joatea da osasun sistema publikoan eraginkortasun handiagoa lortzeko estrategia egokiena.

- Jarduera-helburuak eta helburu kualitatiboak aipatzen dira; kostuak eta dirusarrerak baloratze-ko irizpideak ezartzen dira; kudeatzaileari ahalmena ematen zaio produktibitatearen araberako ordainsariak emateko; eta kostuei buruzko azterlan bat egin beharko da, egituraren gain-kostuak baldintzatzen dituzten faktoreei antzemateko.

Beraz, ikus dezakegu aurrekontu-programa kudeaketa-kontratu bihurtzen dela.

II. HELBURUA

Lan honekin ondoko helburu hauek lortu nahi ditugu:

- 1999rako aurrekontu-programaren betetzeak egotz dakizkiokeen gastu eta dirusarrera guztiak jasotzen dituela egiaztatzea, berorren arrazoizkotasunari buruzko iritzia eman ahal izateko.

- Programazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa den legedia betetzen dela egiaztatzea.

- Programaren ekintzetan lortutako eragingarritasun, efizientzia eta ekonomia mailari buruzko azterketa egitea.

Txostenarekin batera, egindako lanaren arabera egoki jo ditugun gomendioak adierazi ditugu, Ubarmin Klinikako sistemak osatzeko.

III. NORAINOKOA, METODOLOGIA ETA MUGAK.

Lan hau egiteko, Ubarmin Klinikako finantzei buruzko egoera-orriak eta 1999. urteari buruzko informazio estatistikoa erabili ditugu. Zenbait alderdi zehazteko -alderaketak egin ahal izateko, adibidez-, aurreko ekitaldiei buruzko informazioa erabili dugu. Halaber, kudeaketa-kontratuari buruz eskueran genuen informazioa ere erabili dugu.

Nafarroako Kontuen Ganbararen auditoria-gidei jarraituz egin dugu lan, alegia, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsi izan dituen sektore publikoko auditoria arau eta printzipioei jarraituz.

Kontabilitate sistemak ematen duen informazioaz mugatuta dago lana; beraz, ez dira sartzen ez kostuen kontabilitatea, ez sartzeko fasean dauden kudeaketa-kontratuen erabilera berria.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ubarmin Klinikako langileei eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun

Zerbitzuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Egindako lanari jarraituz, Ubarmin Klinikaren 1999. urteko aurrekontu-betetzea aztertu dugu.

Gure lanean, auditoria publikoari buruz oro har onartutako arau eta prozedurak aplikatu dira, egoeraren arabera eta lortu nahi diren helburuak kon-tuan hartuta.

Gure jarduketaren ondorioz, ondoko iritzia- k dauzkagu:

IV.1. AURREKONTU-BETETZEA DELA ETA.

Gastuen eta dirusarreraren betetze egoerak nahiko ongi agertzen du 1999. urteko jarduera, baina aipatzekoa da beste urte batzuei dagozkien egozketa batzuk ere badaudela, kopuru txikikoak izaki betetzean ondorio aipagarriak ez badute ere.

IV.2. LEGEZKOTASUN PRINTZPIOAREN BETETZEA DELA ETA.

Egindako azterketatik ondoriozta daiteke, oro har, Ubarmin Klinikaren jarduera ekonomiko eta finantzarioak legezkontasun printzipioa betetzen duela.

IV.3. ERAGINKORTASUNA, EFIZIENTZIA ETA EKONOMIA DIRELA ETA.

Lehenbizi, azpimarratu behar dugu programa-kontratua berriki ezarri dela, eta haren bidez epe ertainean hobeki baloratu ahal izanzen direla Ubarmin Klinikaren eraginkortasuna eta efizientzia.

Dauden datuetatik ondoriozta daiteke 1999an nabarmen hazi zela jarduera eta kirurgiarako itxaron zerranda murriztu zela; batez besteko egonaldien iraupenak ere behera egin zuen. Bestalde, ez zen kontsultetarako itxaron zerranda gutxitzea lortu eta ez zen behar adina aurrera egin kalitate planetik ondorioztaturiko helburuak betetzeko bidean.

Halaber, azpimarratu beharrekoea da Ubarmin Klinikaren okupazio-indizea ehuneko 62 dela.

Azterketaren ondorioz, hona gure gomendioak:

- *Sortzapenaren irizpidea aplikatzea ekitaldiko eragiketa guztien aurrekontu-betetzea islatzeko.*

- *Ahal den neurrian, lehiakortasuna areagotzea hornidurak, eta bereziki ortopedia produktuak –halakoetan lehiarik batere ez baitago– eskura - zteko garaiak.*

- *Plantillak zentroaren beharrian errealen araberaren egokitzea.*

- *Erabiltzeko dauden bitartekoen kudeaketa eraginkorragoa eta efizienteagoa errazteko kontratu-programaren ezarpena eta garapena ahal den guztian arintzea.*

- *Botiketan, dosi bakarreko sistema ezartzea komeni den aztertzea.*

- *Behar diren neurriak ezartzea kontsultetarako itxaron zerrendak murrizteko.*

- *Nafarroako Gobernuaren sistema administratiboaren prozesu orokorraren baitan, kontu-hartzaile*

letzak jarduteko daukan behin-behinekotasun egoera bukatzea.

- *Iruñerriko traumatologia zerbitzuak berrantolatzeko aukera aztertzea; egun, Nafarroako Ospitalean, Bideko Ama Birjina Ospitalean, ospitale horretako ama eta haurrentzako atalean (haurrentzat) eta berariaz Ubarmin Klinikaren ematen diren zerbitzu horiek.*

V. AURREKONTU BETETZEA

Ondoren, Ubarmin Klinikaren 1999ko aurrekontu-betetzea aurkeztuko dugu, kode ekonomikoaren arabera sailkatua:

Ubarmin Klinikaren aurrekontu-betetzea. 1999ko ekitaldia.

Dirusarreraren aurrekontuaren betetzea (pezetatan)

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubideak	Betetzea, %
Tasak eta bestelako dirusarrerak	38.800.000	38.800.000	22.481.350	% 58
Dirusarrerak, guztira	38.800.000	38.800.000	22.481.350	% 58

Gastuen aurrekontuaren betetzea (pezetatan)

Kapitulua	Hasierako kreditua	Bateratua	Betetakoa	Betetzea, %	Guztiaren gaineko %
Langileen gastuak	1.511.332.000	1.642.052.843	1.642.052.843	% 100	% 65
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	816.000.000	809.520.217	807.425.170	% 100	% 32
Transferentzia arruntak	22.200.000	25.914.961	25.791.150	% 100	% 1
Inbertsio errealak	98.500.000	98.500.000	57.860.980	% 59	% 2
Gastuak, guztira	2.448.032.000	2.575.988.021	2.533.130.143	% 98	% 100

VI. AURREKONTU BETETZEARI BURUZKO AZTERKETA

Ondoren, zenbait azterketa eta iruzkin eginen ditugu gastu eta dirusarreraren aurrekontu-betetzearen kapituluei buruz.

VI.I. GASTUAK.

VI.1.1. Langile gastuak

Langile gastuak, aurrekontu-betetzearen arabera, 1.642 milioi pezetakoak dira; horrek klinikako gastuaren % 65 egiten du.

Zentroak berak "gastu erreala" esaten zaiona kontrolatzen du. Kontabilitate gastuaren eta gastu erreala artean guztira 7 milioiko ezberdintasuna dago. Ezberdintasun horiek Ubarmin Klinikaren bereizitasunarengatik sortzen dira: izan ere, zenbait langile badaude beste zentro batzuei atxikita egon baina Ubarminen lan egiten dutenak, eta beste kasu batzuetan alderantziz ere gertatzen da.

Horrek sortzen du, batez ere ordainsari aldarren kasuan (guardiak eta abar), doikuntza batzuk egin behar izatea ordaintzen duen zentroaren eta gastua egotzi behar zaion zentroaren artean.

Halaber, gastu-lerroak aztertuz gero, ikus daiteke elkarrekin orekatzen diren ezberdintasunak gertatzen direla, gastua egozteko moduengatik.

PLANTILLA.

Plantilla ofizialean, 1999-12-31n, 268 plaza daude; horietatik 38 bete gabe zeuden; horrek esan nahi du 230 direla "lanpostu finkoak".

1999-12-31n zeuden langileen kopuru errealarri erreparatuz gero, 234 langile finko eta aldi baterako 99 langile zeuden.

Urtean zeharreko batez besteko plantilla 308 pertsonakoa izan zen; horietatik 227 finko eta 81 aldi baterako langileak ziren.

308 pertsona horiek honela daude banatuta:

Langileak	Kopurua
Zuzendaritzakoak	4
Fakultatibo espezialistak	38
Osasun langile tituludunak	102
Osasun langile titulurik gabeak	94
Administrariak	35
Zerbitzu orokorrak	35
Guztira	308

Osasun zentroetan kontratazio ugari egiten da. 1999an, Ubarmin Klinikari 441 kontratu egin ziren, kontraturiko 107 pertsonari dagozkionak; beraz, urteko 4 kontratuko batez bestekoa dago. Horrek erakusten du batez beste, hilabetearen, 80 pertsona kontratatzen direla eguneko; bi muturretan, martxoan 65 langile kontratatu ziren eta azaroan 99.

Honela banatzen dira eguneko kontratatutako 80 langileak:

Langileak	Kopurua
Fakultatibo espezialistak	14
Osasun langile tituludunak	21
Osasun langile titulurik gabeak	24
Administrariak	8
Zerbitzu orokorrak	13
Guztira	80

Hona kontratazio horien arrazoiak:

	Kopurua
Egiturazkoak	44
Bete gabeko lanpostuak	18
Ordezkapenak	18
Guztira	80

ORDAINSARIAK.

Nominekin eginiko probatik ondorio haxe ateratu dugu: oro har, ordainketa guztiak behar bezala justifikaturik daude.

Ordainsari aldakorrek 111,2 milioi pezeta egiten dute. Hona banaketa:

	Pezetak, milioitan
Guardiak	38,3
Jai egunak	29,2
Gauak	17,7
Produktibitatea	25,3
Aparteko orduak	0,7
Guztira	111,2

Ubarmin klinikako harremanen konplexutasunaren adibide bat emateko, guardiak egiten dituzten kolektiboak aipatuko ditugu:

a) Ubarmin Klinikari atxikitako traumatologoak, egotezko guardiak Bideko Ama Birjina Ospitalean egiten dituztenak.

b) Ubarmin Klinikari atxikitako traumatologoak, guardia lokalizatuak Ubarmin Klinikari egiten dituztenak.

c) Bideko Ama Birjina Ospitaleari atxikitako sendagileak, Ubarminen guardia lokalizatuak egiten dituztenak.

d) Ubarmin Klinikako sendagileak, guardia lokalizatuak Lizarrako Ospitalean egiten dituztenak.

e) Ubarmin Klinikako gainerako langileak, Ubarminen guardiak egiten dituztenak (barne-medikuntza, anestesia, laborategia eta abar).

Azpirarratzekoa da, kopuruagatik, anestesia zerbitzuak eginiko gardien kopurua, azken urteetan 9.000 ordutara iritsi baita.

Produktibitate osagarria, "eguneko soldatak" izenaz ezagutzen dena, 1992. urtetik ordaindu izan da, 11/92 Foru Legeak baimendutakoaren bidetik (11. art.); izan ere, ondokoak ordaintzen dituen aparteko osagarri hori ezarri zuen: errendimendu berezia, aparteko programa edo jarduketetan parte hartzea, lanaldi osagarriak egitea, ekarpen zientifikoen balio edo interes berezia eta, oro har, jendeari zerbitzu gehiago edo zerbitzu hobea ematen edo lan kopuru handiagoa edo lana hobeki egiten laguntzen duten jarduketak guztiak.

1999. urtean, kontzeptu horrengatik, 71 pertsonak 25 milioi pezeta eskuratu zituzten; funtsean, itxaron zerrendak murrizteko arratsaldeko lanaldi osagarriak ordaintzeko erabili zen osagarria.

Osagarriaren orduko batez besteko prezioa 5.017 pezetakoa da A mailako langile batentzat eta 1.825 pezetakoa E mailako langile batentzat.

Azarotik aurrera, arratsaldeko lanaldi horietarako kontratu berriak egiten ari dira, lana "astun" egiten baitzuten.

Epai baten indarrez, kopuru hori Ubarmin Klinikara doazen Bideko Ama Birjina Ospitaleko sendagile jakin batzuei ordaintzen zaie: 7,8 milioi egin zuen. Kontzeptu horri buruz, esan behar dugu hilabeteko lan egunen arabera ordaintzen dela, hartzailearen egoera pertsonala kontuan hartu gabe.

Hona gomendatzen duguna:

- *Iraungitzeko dauden postuen egoera berri-kustea; horietako batzuk aldi baterako langileek betetzen dituzte 1994tik.*

- *Zentro honetan Osasunbideko gainerakoetan baina beheragoko maila batean dauden postuetan (sukaldariak) sustapen prozesuak egitea; egoera*

hori konpentsatzeko, egun, "produktibitate osagarria" jasotzen dute.

- *Osagarriak beren kontzeptuari egokitzea, fin-koak eta aldakorrak nahastu gabe.*

Aipatu beharrekoa da txosten hau egiteko garaian abiatuak direla aurreko gomendioak betetzeko prozesuak.

- *Plantillak zentroaren beharrezanetara egokitzea.*

VI.1.2. Ondasunak eta zerbitzuak erostea.

"Ondasun arruntak eta zerbitzuak ordaintzeko gastuak" kapituluko gastuak, aurrekontu-betetzearen arabera, 807 milioi pezeta egiten dute; klinikako gastuaren ehuneko 32 egiten dute.

Halere, 1999. urteko gastu errealek 795 milioi egiten dute, aurreko ekitaldiko 38 milioi kontabilitatu baitira, milioi bat pezeta gastuen aurrekontuari aplikatu behar zaizkiolako eta programa-kontratuaren lerroari egotzitako 25 milioiko gastu bat dagoelako, kontratu horretan itxaron zerrendak murrizteko programari loturiko finantzaketa gehigarriari buruz ezarritakoaren ondorioz.

Ondokoei dagozkien kapitulu honetan erregistraturiko gastu-kontzeptu nagusiak:

	Pezetak, milioitan
Konpontze eta mantentze lanak	18
Elikagaiak	25
Protesiak	356
Sendagaiak	37
Kontsumoko osasun materiala	63
Garbategia	16
Garbiketa	105
Elektrizitatea, ura eta gasa	41
Erregaia	12
Laborategiko produktu kimikoak	13
Besterik	121
Guztira	807

Laginketa bat egin da erosketak eta kontratu-zerbitzuak multzotan bil daitezkeen gastu batzuei buruz; gastu horiek 571 milioi pezeta egiten dute.

Aldez aurretiko alderdi gisa, azpirarratu behar da 1999ko maiatzean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak sinaturiko gastu jakin batzuen tramitazio eta kontrolari buruzko irizpide batzuk daudela; milioi bat eta milioi eta erdi pezetaren arteko gastuak dira.

Halaber, kontu-hartzaitzak aurten bizi izan duen egoeraren ondorioz -1999. urteko Kontu Orokorrei buruzko txostenean iruzkindu genuen (2001eko urtarrilaren 10eko 5. NPAO)-, egiaztatu dugu kontu-hartzaile delegatuaren sinadurarik gabe eginiko ordainketen dokumenturik badagoela, gehienak kontu-hartzaitzan irizpide berriak ezarri ziren garaikoak.

Garbiketa zerbitzuaren kontratuak 105 milioi pezeta egiten du, eta 1996an sinaturiko baten luzapena da. Hasieran sinaturiko kontratuan akats bat izan zen, urteko diru-kopurutzat hartu baitzen urtearen aldi partzialari zegokiona. Akats hori gero zuzendu zen, baina fidantza ez zen zuzendu.

Argibide fundazioarekin kontratu bat dago klinikako gaixoen laguntza psikologiko eta psikiatriko-rako; kontratua aurreko urteetatik dator. Aurtengo gastua 10 milioi pezetakoa da eta ehuneko 85 igo da aurreko urtetik, prezioen gaurkotze logiko baten ondorioz eta sortutako beharrianetatik egitako moldaketa baten ondorioz.

Erosketei dagokienez, zenbait egiaztatze egin dira protesiekin, osasun materialekin eta sendagaiekin. Honako alderdiak azpimarratu behar ditugu horri buruz:

- Protesietan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lehiaketa orokor bat egitetik zentro bakoitzak bere erosketak egitera pasatu da.

- Desfase argia dago lehiaketak bukatu diren unetik teoriar indarrean sartu behar diren unera; horrek berekin ekarri du lehiaketaren baldintzak lehiaketa horiek bukatzen diren egunaren aurretik aplikatzea.

- Lehiaketetan gertatzen diren atzerapenen ondorioz, erosketei buruzko datuak hartu behar dira kontuan, ezin baita datu baliagarriak eskuratu prozesu informatikoetatik. Bada, gure estimazioen arabera, protesi-eskariaren ehuneko 77 eta osasun materialaren ehuneko 60 lehiaketa bidez eskuratu dira.

- Ortopediako gastu osoa -18 milioi pezeta- lehiaketaz bestelako modu batera eskuratzen da, eta ia dena hornitzaile beraren eskutik.

- Protesien gastuaren ehuneko 95 hiru hornitzaileen eskutik eskuratzen da.

- Osasun materiala 113 hornitzailei erosten zaie.

- 1999an lehiaketaz kanpo eskuraturiko protesiez bestelako artikulak 2001ean tramitatzen ari

diren lehiaketetan sartzen ari dira. Ortopediakoak dira salbuespena.

- Klinikaren ezaugarriak direla eta, farmaziako arduradunek eta plantako gainbegiraleek kontrolatzen dituzte sendagaiak; horrek zailago egiten du produktuen kontrola.

- 1999ko azken hiruhilekoan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren sendagaien kudeaketa aplikatu da; beraz, ezin izan dugu biltegi mugimenduari buruzko daturik erabili.

- Sendagaiak erosteko kudeaketak Nafarroako Ospitalean zentralizatzen dira; Ospitaleak eskaintzak egiteko eskatzen die laborategi guztiei, hurrengo urtean aplikatu behar diren baldintzak aipatuz.

Hala eta guztiz ere, zentro bakoitzak sendagaiak erosteko autonomia dauka; batzutan, baldintza orokorrak baino hobekoak ere lortzen dira.

- Ez da dosi bakarreko sistema ezarri sendagaiak emateko, zentroa hobeki informatizatua egotea eskatzen baitu.

Hori dela eta, hona gure gomendioak:

- *Ahal den neurrian, lehiaketa orokorrak egitea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu osoa -rentzat.*

- *Lehiaketetarako espedienteak behar adina denborarekin abiatzea, aurreikusitako egunear sar daitezen indarrean.*

- *Kontratazio espedienteko informazioa osatzea, bai materialen ezaugarri teknikoaren motibazioari dagokionez, bai adjudikaziorako irizpideak definitu eta baloratzeari dagokionez ere.*

- *Lehia sustatzea ortopediako produktuen erosketan, bai eta erabiltzen dituen artikuluen berrien erosketan ere.*

- *Sendagaien kudeaketarako aplikazio informatikoaren erabilera arintzea, eraginkortasun handiagoa lortzeko, batez ere eskarrietan, izakinen kopuruan, iraungipen datetan eta abar.*

- *Modu bat bilatu behar da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentro guztiek beti produktua erosteko baldintzarik onenak lor ditzaten. Ez dirudi zentzu handia duenik zentro batek osasun sistema osoak baino baldintza hobekak lortu ahal izatea.*

- *Sendagaien hornidurarako, dosi bakarreko sistema ezartzea komeni ote den aztertzea.*

VI.1.3. Transferentzia arruntak

Kapitulu honetako gastuek 26 milioi pezeta egiten dute: bi milioi erlijio-laguntzari dagozkio, 1985ean Elizak eta Estatuak izenpeturiko akordio baten indarrez; 24 milioi langileen garraioa eta Iruña eta Ubarmin Klinika lotzeko garraio-linearen defizita diruz laguntzeko dira.

Gure estimazioen arabera, 24 milioi horietatik 8 langileen garraioaren kostuari dagozkio. 1999an, 65.954 bidaiarik erabili zuten zerbitzua, hau da eguneko 182 bidaiari eta 18 bidaiari bidai bakoitzeko.

Ospitaleak zerbitzu publiko bat betetzen baitu, komenigarria izanen litzateke Ubarmin Klinikarai-

noko bidaia merkataritza-garraio mankomunatuaren sarean sartzea.

VI.1.4. Inbertsioak

Ubarmin Klinikak 1999an 58 milioi pezetako inbertsioak egin zituen: zentroaren gastu osoaren ehuneko 2. Haien betetzeak aurrekontuaren ehuneko 59 egiten du, Plan Zuzentzaileari dagokion kontusaila ezertarako ere ez baita bete. Plan Zuzentzaileak –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zerbitzu zentralak kudeatzen du– 1.473 milioi pezetako inbertsioak aurreikusten zituen, 1998ko prezioekin, bost urteko epean, baina denboraren programazioak huts egin du.

Hona eginiko inbertsioen desglosea:

500.000 pezeta bitarte		500.000 eta milioi 1 bitarte		Milioi bat baino gehiago		Guztira	
Espediente zk.	Kopurua	Espediente zk.	Kopurua	Espediente zk.	Kopurua	Espediente zk.	Kopurua
85	16	7	6	14	36	106	58
% 80	% 27	% 7	% 10	% 13	% 63	% 100	% 100

Espedienteen ehuneko 80k aurrekontu betetzearen ehuneko 27 egiten du, eta 500.000 peze-ta baino inbertsio txikiagoei dagokie.

Espedienteen ehuneko 7k gastuaren ehuneko 10 egiten du; milioi erdi eta milioi bat peze-ta bitarteko inbertsioei dagokie. Zentroko zuzendariaren ebazpenez tramitatzen dira, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz. Oro har, hiru eskaintza eskatzen dira.

Espedienteen ehuneko 13k aurrekontu-bete-tzearen ehuneko 63 egiten dute: milioi bat peze-ta baino gehiagoko inbertsioei dagokie. Osasunbi-dea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari-kudeatzailearen ebazpenez tramitatzen dira,

publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabi-liz eta hiru eskaintza eskatuz.

Oro har, esan daiteke beti ez dela kontraturik sinatzen, eta akats batzuk antzeman ditugu espe-dientea bukatu aurretik fidantzak eratu eta eskain-tzak eskatzeko garaian. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kudeaturiko espedienteen kasuan, antzeman ahal izan dugu espedienteak ez direla osatzen, dokumentu batzuk zerbitzu zen-traletan eta beste batzuk Ubarminen daudelako.

Kontratuei buruzko arauak hertsikiago betetze -ko gomendatzen dugu, nagusiki eskaintzak eska-tu baino lehen baldintzak zehazteari, komunikazio epeei eta kontratuak sinatzeko epeei eta fidantzak ezartzeari dagokienez.

VI.2. DIRUSARRERAK

Ubarmin Klinikako dirusarrerek 22,4 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik 20,2 Gizarte Segurantzaz bestelako estaldura duten gaixoei eginiko fakturazioei dagozkie; gainerakoak, zentroko kafetegiaren alokairuari dagozkionak dira.

Aplikatzen diren tarifak aseguru-enpresekin sinaturiko hitzarmenaren bitartez onetsi dira.

Fakturaren batekin arazorik izatekotan, faktura hori ez da kontabilizatzen zalantzak argitu arte. 1999an, aurreko ekitaldietako 341.000 pezeta erregistratu eta 1.396.000 pezeta erregistratzeke geratu ziren; gehienak 2000n kontabilizatu ziren.

Kobrانتzen kudeaketa zentroak berak egiten du. 1999-12-31n, honakoak ziren kobratzeke zeudenak:

Urtea	Partikularrak	Lana	Trafikoa	Entitateak
1993 eta aurrekoak	4.854.983	647.005	8.301.350	–
1994–96	250.492	26.000	366.395	–
1997	122.400	0	48.092	–
1998	493.400	0	1.006.500	–
1999	1.192.652	7.113.054	1.018.368	–
Guztira	6.913.927	7.786.059	10.740.705	16.299.143

Kafetegia alokatzearen ondoriozko dirusarrerei dagokienez, 1987an -zentroaren kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren esku geratu baino lehen- sinaturiko kontratu baten luzapenari dagozkio. Faktura urte bukaeran prestatzen da, eta kutxa irizpideari jarraitzen zaio. Beraz, 1999an kontabilizaturiko kopurua aurreko urteari dagokiona da.

Hona gure gomendioak:

- *Antzinako zorrak kobratzeko aukera aztertzea eta, kasu bada, zor horiek agentzia exekutiboari pasatzea edo balizko preskripzioak deuseztatzea.*

- *Kafetegiaren adjudikazio-kontratua gaurkotzea eta sortzapenaren irizpidez kontabilizatzea.*

VII. ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA.

Ondoren, Ubarmin Klinikak 1999an izaniko jarduera erakusten duten taula batzuk erantsi ditugu.

Lehenbiziko bietan, Ubarmin Klinikaren jarduerari buruzko datu orokorrak aurkituko ditugu. Hurrengo hiruek Iruñeko ospitaleetako traumatologia zerbitzuaren jarduera azaltzen dute.

Lehenbiziko bi tauletatik ondoko ondorioa ateratzen dugu: ospitaleratzeek eta ebakuntzek gora egin dute; aldi berean, batez besteko egonaldia murriztu da eta, beraz, okupazio indizea jaitsi da. Indize hori nahiko txikia da: ehuneko 62 inguru.

Ondoko hiru tauletan, Iruñeko ospitaleetako traumatologia eta kirurgia ortopedikoa aztertzen dira. Ubarmin Klinikaren jarduera nagusia da zerbitzu hori.

Bada, ikus daiteke Ubarmin Klinikako jarduera kirurgikoa 1998an ehuneko 44 eta 1999an ehuneko 50ekoa izan zela. Ehuneko horiek nabarmen aldatu dira funtsean larrialdiko ebakuntzek behera egin dutelako (1.716 izatetik 1.349 izatera). Hala ere, jarduerarik ez dago Ubarmin Klinikari.

Datu horiek agertzera ematen dute Ubarmin Klinikak, kirurgia ortopedikoan espezializaturiko zentroa baita, traumatologia eta kirurgia ortopedikoko kasuen erdiak hartzen dituela.

Programa-kontratuari dagokionez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eginiko ebaluazioaren emaitzen arabera, oro har, esan daiteke jardueraren helburuak bete direla eta kirurgiarako itxaron zerrendak murriztu egin direla; halere, ez dira gutxitu kontsultetarako itxaron zerrendak (ikus 6. taula).

Kalitate planari dagokionez, aurrerantzean lan gehien egin beharko den arloa da, 1999rako aurreikusitako helburuen erdia-edo baizik ez baita bete.

Kontsulten kudeaketa arindu eta itxaron zerrendak gutxitzea eta kalitatea dela-eta ezarritako helburuak betetzeko bidean aurrera egitea bideratuko duten neurriak hartzea gomendatzen dugu.

I. taula

UBARMIN KLINIKAKO DATUAK

	99-98 aldea					99-97 aldea	
	1997	1998	1999	Kopurua	%	Kopurua	%
Oheak	125	125	125	0		0	
Erabilgarri dauden oheak	113,25	113,25	113,25	0		0	
Ospitaleratzeak	3.028	3.192	3.542	350	10,96	514	16,97
Altak	2.956	3.095	3.436	341	11,02	480	16,24
Egonaldiak	28.066	28.629	25.573	-3.056	-10,67	-2.493	-8,88
Lehen bisitak	8.631	13.490	13.487	-3	-0,02	4.856	56,26
Ondoko bisitak	22.792	26.702	26.216	-486	-1,82	3.424	15,02
Kontsultak, guztira *	31.423	40.192	39.703	-489	-1,22	8.280	26,35
Ebakuntzak, anest. orok.	2.304	2.439	2.730	291	11,93	426	18,49
Ebakuntzak, anest. lok.	428	542	580	38	7,01	152	35,51
Ebakuntzak, guztira	2.732	2.981	3.310	329	11,04	578	21,16
Errehabilitazio saioak, guztira	148.383	164.098	175.000	10.902	6,64	26.617	17,94
Inplanteak, guztira	567	627	626	-1	-0,16	59	10,41
Operazio-gelen erabilera orduak, guztira	4.152	4.668	4.734	75	1,61	591	14,23
Ebakuntzen batez besteko iraupena	91,19	93,96	85,98	-8,00	-8,49	-5,21	-5,71
Okupazio-indizea	67,90	69,26	61,87	-7,39	-10,67	-6,03	-8,88
Batez besteko egonaldia	9,27	8,97	7,22	-1,75	-19,50	-2,05	-22,11
Gaixoa/ohea errotazioa	26,74	28,19	31,28	3,09	10,96	4,54	16,97
Ondokoak/lehenak	2,64	1,98	1,94	-0,04	-1,80	-0,70	-26,39
Ingresoak/eguna	12,31	13,03	14,34	1,31	10,07	2,03	16,50
Lehenak/eguna	35,09	55,06	54,60	-0,46	-0,83	19,52	55,63
Ondokoak/eguna	92,65	108,99	106,14	-2,85	-2,62	13,49	14,56
Ebakuntzak/eguna	11,11	12,17	13,40	1,23	0,10	2,30	0,21

* Zentroan eginikoak soilik

2. taula

KIRURGI JARDUERA

	99-98 aldea					99-97 aldea	
	1997	1998	1999	Kopurua	%	Kopurua	%
Bizkarrezurra	434	584	738	154	26,37	304	70,05
Aldaka	349	356	358	2	0,56	9	2,58
Belauna	1.140	1.054	1.218	164	15,56	78	6,84
Goiko gorputz-adarra	344	428	461	33	7,71	117	34,01
Behoko gorputz-adarra	203	231	332	101	43,72	129	63,55
Besterik	262	328	223	-105	-32,01	-39	-14,89
Ebakuntzak, guztira	2.732	2.981	3.310	329	11,04	578	21,16

INPLANTEAK (PROTESIAK)

	99-98 aldea					99-97 aldea	
	1997	1998	1999	Kopurua	%	Kopurua	%
Belauna	211	269	282	13	4,83	71	33,65
Aldaka	324	322	303	-19	-5,9	-21	-6,48
Bizkarrezurra	32	36	41	5	13,89	9	28,13
Inplanteak, guztira	567	627	626	-1	-0,16	59	10,41

UBARMIN KLINIKAKO 1999KO KONTSULTAK, ZERBITZUEN ARABERA

	Lehenak	Ondorengoak	Guztira	Ondokoak/lehenak	
Ortopedia	5.955	15.038	20.993	2,53	
Traumatologia Solchaga	12.920	16.761	29.681	1,30	
Kupoak	5.829	10.639	16.468	1,83	
Traumatologia Tafalla	2.583	4.910	7.493	1,90	
Traumatologia, guztira	27.287	47.348	74.635	80	1,74
Errehabilitazioa	3.171	7.471	10.642	11	2,36
Barne medikuntza	1.152	1.181	2.433	3	0,94
Hematologia	66	568	634	1	8,61
Anestesia	2.854	0	2.854	3	0,00
Psikologia	191	1.965	2.156	2	10,29
Guztira	34.821	58.533	93.354	100	1,68

3. taula

TRAUMATOLOGIAKO JARDUERA KIRURGIKOA, OSPITALEEN ARABERA

1998	PROGRAMATUAK				LARRIALDIKOAK			
	Anestesia	Anestesia Orokorra	Anestesia Lokala	GUZTIRA	Anestesia Orokorra	Anestesia Lokala	GUZTIRA	LARR+ PROG
Bideko Ama Birjina - Orokorra	502	58	0	560	322	86	408	968
Bideko Ama Birjina - Haurrentzakoa	142	29	71	171	151	9	160	402
Nafarroako Ospitalea	985	99	0	1.084			1.148	2.232
Ubarmin Klinika	2.439	542		2.981				2.981
Ubarmin Klinika, San Juan de Dios klinikan	89	75		164				164
Guztira	4.157	803	71	4.960	473	95	1.716	6.747

1999	PROGRAMATUAK				LARRIALDIKOAK			
	Anestesia	Anestesia Orokorra	Anestesia Lokala	GUZTIRA	Anestesia Orokorra	Anestesia Lokala	GUZTIRA	LARR+ PROG
Bideko Ama Birjina - Orokorra	549	56		605	294	71	365	970
Bideko Ama Birjina - Haurrentzakoa	157	35		192	154	11	165	357
Nafarroako Ospitalea	1.033	109		1.142			819	1.961
Ubarmin Klinika	2.730	580		3.310				3.310
Guztira	4.469	780	0	5.249	448	82	1349	6.598

4. taula

TRAUMATOLOGIA ETA ORTOPEDIA ZERBITZUAREN JARDUERA, OSPITALEEN ARABERA

1998	OSPITALERATZEAK								
	OHEAK	Larrialdiak	Programatuak	Bestelakoak	GUZTIRA	EGONALDIAK	Batez besteko egonaldia	Okupazio-indizea	Errotazio adierazlea
Bideko Ama Birgiña-Orokorra	21	953	140	29	1.122	7.696	6,86	100,40	56,10
Bideko Ama Birgiña-Haurrentzakoa	1	175	70	4	249	766	3,08	209,86	5,08
Nafarroako Ospitalea	46	727	755	36	1.518	14.431	9,51	86,90	33,40
Ubarmin Klinika	73	0	2.956	0	2.955	23.654	8,00	96,70	44,10
Guztira	141	1.855	3.921	69	5.844	46.547	7,96		

1999	OSPITALERATZEAK								
	OHEAK	Larrialdiak	Programatuak	Bestelakoak	GUZTIRA	EGONALDIAK	Batez besteko egonaldia	Okupazio-indizea	Errotazio adierazlea
Bideko Ama Birgiña-Orokorra	22	977	128	34	1.139	7.682	6,74	97,83	52,95
Bideko Ama Birgiña-Haurrentzakoa	1	176	78	7	261	710	2,72	194,52	261
Nafarroako Ospitalea	45,7	702	744	39	1.485	14.183	9,55	85,00	32,5
Ubarmin Klinika	73		3.238	187	3.425	21.687	6,33	88,70	51,1
Guztira	141,7	1.855	4.188	267	6.310	44.262			

5. taula

TRAUMATOLOGIAKO KONTSULTAK, OSPITALEEN ARABERA

1998 KANPOKO KONTSULTAK					
	Lehenbizikoak	Ondokokoak	GUZTIRA	Ondokoak/Lehenak	%
Bideko Ama Birjina	73	1.813	1.886	24,84	% 3
Bideko Ama Birjina-Haurrentzakoa	1.736	3.530	5.266	2,03	% 7
Nafarroako Ospitalea	2.180	7.918	10.098	3,63	% 14
Ubarmin Klinika	6.289	16.103	22.392	2,56	% 30
" Solchaga	12.315	13.955	26.270	1,13	% 36
" Tafalla	2.823	5.409	7.962	2,37	% 11
Guztira	25.416	48.728	73.874	1,92	% 100

1999 KANPOKO KONTSULTAK					
	Lehenbizikoak	Ondokokoak	GUZTIRA	Ondokoak/Lehenak	%
Bideko Ama Birjina	52	1.973	2.055	37,94	% 2
Bideko Ama Birjina-Haurrentzakoa	1.141	3.698	4.839	3,24	% 5
Nafarroako Ospitalea	2.264	8.911	11.175	3,94	% 12
Ubarmin Klinika	5.955	15.038	20.993	2,53	% 23
" Solchaga	12.920	16.761	29.681	1,3	% 32
" Kupoak	5.829	10.639	16.468	1,83	% 18
" Tafalla	2.583	4.910	7.493	1,9	% 8
Guztira	30.744	61.930	92.704	53	% 100

6. taula. 1999ko urtarrila-abendua ebaluazioa

JARDUERA ETA HELBURUAK, KUPOEKIN.

	URTARRILA-ABENDUA JARDUERA		HELBURU OROKORRA	1999AN EGINDAKOAREN GAINEKO %		EBALUAZIOA
	1999	1998		1998.aren aldean	1999.eko helburuaren aldean	
Programatutako ospitaleratzeak	3.542	3.186	3.194	% 11,17	% 10,90	A
Larrialdiko ospitaleratzeak	0	2	0	0	0	
Ospitaleratzeak, guztira	3.542	3.188	3.194	% 11,10	% 10,90	A
Batez besteko egonaldia	7,22	8,97	8,75	-1,75	-1,53	A
Prog. A.O. ospitaleratzearekin	2.730	2.439	2.439	% 11,93	% 11,93	
Prog. A.O. ospitaleratu gabe	0	0	0	0	0	
Prog. A.O. San Juan de Dios O.	325	309	309	% 5,18	% 5,18	
Jarduera kirurgiko programatua, A.O.	3.055	2.748	2.659	% 11,17	% 14,89	A
Progr. A.L. ospitaleratzearekin	0	0	0	0	0	
Prog. A.L. ospitaleratu gabe	580	542	542	%7,01	%7,01	
Prog. A.L. San Juan de Dios O.	258	238	163	% 8,40	% 58,28	
Jarduera kirurgiko programatua, A.L.	838	780	705	%7,44	% 18,87	A
Jarduera kirurgiko programatua, guztira	3.893	3.528	3.364	% 10,35	% 15,73	A
Jarduera kirurgikoa, guztira	3.893	3.528	3.364	%10,35	% 15,73	A
Lehen kontsultak	35.034	36.146	36.093	% -3,08	% -2,93	C
Ondorengo kontsultak	58.745	60.341	64.967	% -2,64	% -9,58	C
Kontsultak, guztira	93.779	96.487	101.060	% -2,81	% -7,20	C
Ondorengo/lehenengo knts. erlazioa	1,68	1,67	1,8	0,01	-0,12	A

PRODUKZIOA	1999	1998	HELBURUA	
Fakturatu daitezkeen dirusarrerak	3.460	3.055	3,149	A = Helburua bete da B = 1998an baino hobeki C = 1998an baino okerrago
Ospitaleratzea, batez beste	1,607	1,067	1,64	
Kodetu gabeko altak, % (abenduaren 31n)	0,000	12,18	5%	

ITXARON ZERRENDAK ETA JARDUERA, KUPORIK GABE

KIRURGIAKO ITXARONALDIAK	1999-1-1	2000-1-1	HELBURUA	Balioa
Batez besteko itxaronaldia	66	46	44	B
3 hilabete baino gutxiagoko itxaronaldia	475	304		
3-6 hilabeteko itxaronaldia	60	3		
6 hilabete baino gehiagoko itxaronaldia		0	0	
Pertsonak, guztira	535	307	356	A
Itxaronaldia, ehunekoa	% 17,01	% 8,57	% 12	A
180 egun baino gehiagoko zerb.	0	0	0	A

KIRURGIAKO ITXARON ZERRENDA	PERTSONAK HILABETEKO			PERTSONAK GUZTIRA		ABENDUKO JARDUERA		ITXAROTEA, %		BALORAZIOA
ZERBITZUA	< 3 hilabete	3-6 hilabete	> 6 hilabete	1999-1-1	2000-1-1	1998	1999	1999-1-1	2000-1-1	1999
Traumatologia	304	3	0	535	307	3.145	3.582	17,0%	8,6%	A

ITXARON ZERRENDAK ETA JARDUERA, KUPORIK GABE

KIRURGIAKO ITXARONALDIAK	1999-1-1	2000-1-1	HELBURUA	Balioa
Batez besteko itxaronaldia	24	12	18	A
0-20 egun	1.830	1.929		
21-40 egun		182		
41-60 egun				
61-80 egun				
80 egun baino gehiago	215			
Pertsonak, guztira	2.045	2.111	1.385	C
Itxarotearen ehunekoa	% 7,30	% 8,08	% 5	C
60 egun baino gehiagoko zerbitzua	1	0	0	A

ITXARON ZERRENDA, KONTSULTETARAKO	ITXAROTEKO EGUNAK		PERTSONAK		URTARRILA- ABENDUA JARDUERA		ITXAROTEAREN BALORAZIOA		
20 egun baino gehiagoko zerb.	1999-1-1	2000-1-1	1999-1-1	2000-1-1	1998	1999	1999-1-1	2000-1-1	1999
Traumatologia Tafalla	94	22	215	182	2.283	2.446	% 9	% 7	b

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINA: PROGRAMAREN DESKRIBAPENA. 1999KO AURREKONTUA.

5. DEPARTAMENTUA: OSASUNA

PROGRAMA: 544 - Ubarmin Klinika

Unitate arduraduna: Zuzendaritza

1. ZUZENDU NAHI DEN EGOERA; ZERTAN ERAGIN NAHI DEN.

Foru Komunitateko ospitaleen sareko kudeaketa-kontratuak dira esleituta dauzkan funtzioak garatzeko zentroak dauzkan helburu, ekintza eta baliabideak hobekien azaltzen dituztenak. Hitzez hitz transkribatu dugu hobeki ulertu eta aztertze-ko:

KUDEAKETA-KONTRATUA, 1999 - UBARMIN KLINIKA

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 59.2 artikulua ezarri zuen sektore publikoko ospitaleak era deszentralizatuan kudeatuko direla, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritza eta kontrolaren mende.

Osasun sistemen finantzaketa eta hornikuntza funtzioak arian-arian bereizten joatea da Osasun Sistema Sanitarioan efizientzia handiagoa erdies-terko estrategiarik egokiena.

Kudeaketa-kontratuak da gaur egun kudeaketa- ren deszentralizazioak, Foru Legeak bilatzen duena, lortzeko tresnarik egokiena; gainera, zerbitzu eta unitate klinikoetako kudeaketan inplikazio progresiboko prozesu kontrolatu bat bideratzen du.

Bestalde, Kudeaketa-kontratuak bidea ematen du finantzatu beharreko zerbitzuak eta haien kopurua eta kalitatea zehazteko, halako moduan non finantzaketaren ahalegina egokituko baitzaie gizarteak lorturiko emaitzei; emaitza horiek zerbitzu zehatz, objektibatu eta etengabe monitorizatu- tuen bitartez neurtuko dira.

1997an programa-kontratu aplikatzeko espe- rientziak aukera eman du kudeaketa-kontratuaren eredu hobetzeko eta baliozkotzat jotzeko; izan ere, egokitzen jotzen dugu kudeaketa-kontratu hori aplikatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zer- bitzuko Ospitale guztietan.

Bi aldeek ezinbestekotzat jotzen dute profesio- nalak prozesuan inplikatu eta kudeaketa klinikoko itun edo kontratuak garatzea, baita kalitatea hobe- tzeko prozesu jarraituak ezartzea ere, hain zuzen ere herritarrari ematen zaion zerbitzuaren kalitate- aren onerako.

Azaldutakoa dela eta, bi aldeek ondoko kudea- keta-kontratu sinatu dute 1999rako, ondoko esti- pulazioei jarraituz:

ESTIPULAZIOAK**LEHENA. KUDEAKETA-KONTRATUAREN HELBURUA**

1.1. Ubarmin Klinikak bere gain hartzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak babestutako herritarrei arreta eta zerbitzuak ema- teko funtzioak betetzearen ardura, ondoren zehazten diren hedapenarekin eta baldintzekin.

1.2. Zentroak bere giza baliabideekin eta balia- bide teknikoekin egingen die arreta Osasunbidea- Nafarroako Osasun Zerbitzuko teknikari eta erabil- tzaileei, konplexutasun mailaren arabera, ondoko modalitateetan sarturiko zerbitzuak emanez:

a) Laguntza espezializatua, ospitaleratze arau- bidearekin.

b) Eguneko ospitaleratzea, jarduera ambulato- riorako.

c) Kanpoko kontsultak, ospitale barnekoak eta ospitale kanpokoak.

d) Larrialdietako laguntza.

e) Protesiak eta inplanteak.

f) Irakaskuntza, ikerketa eta prestakuntza jarraituko jarduera.

g) Laguntzazko bestelako programa bereziak, kasuan kasu aipatzen direnak.

h) Osasun Hezkuntzako programak, Osasuna Sustatzekoak eta Laguntza Komunitarioa emate- koak, zentroarekin ituntzen denaren arabera.

1.3. Zerbitzuak indarreko arauen arabera eman beharko dira, kontratuan ezarritako termino- ei jarraituz, zentroaren ahalmenetik eta laguntza aukeretatik ondorioztatzen diren mugak baizik izan gabe.

BIGARRENA. EREMUA.

2.1. Zentroak, lehentasunez eta laguntzari buruzko plangintza egiteko beharraz, kokatuta dagoen osasun barrutiko biztanleak izanen ditu bere mende. Hala eta guztiz ere, zentroan dauden lurraldeaz gaineko zerbitzuez gainera, Osasunbi- dea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zentrori bidali ahal izanen ditu Nafarroako Foru Komunitateko gainerako lekuetako eta Osasun Sistema Nazio- naleko biztanleak.

HIRUGARRENA. ZERBITZUAK ERABILTZEA.

3.1. Inoiz ere ez da ezberdintasunik izanen osasun laguntzan eriei ematen zaien tratuan, edonondik datozela ere. Laguntza modalitate guztietan eta jatorriz, Harrera Zerbitzua bakarria izanen da, Osasunari buruzko Lege Orokorreko 16. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoa betez.

3.2. Kudeaketa-kontratuan jasotako zerbitzuen truke, zentroak ezin izanen die eskatu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak babestutako herritarrei ez eta Osasun Sistema Nazionalekoei ere inongo diru-ekarpen osagarririk.

3.3. Zerbitzu espezializatuak eskuratzeko, horri buruz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zuzendaritzak ezarritako edo ezarriko duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

LAUGARRENA. ERABILTZAILAREN ESKUBIDEAK.

4.1. Erabiltzailearen eskubideei dagokienez, zentroak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gaixo eta erabiltzaileen eskubide eta bete-beharren gutunean ezarritakoa aplikatuko du; horiek apirilaren 25eko Osasunari buruzko Lege Orokorrean aitortuta daude, 10 eta 11. artikuluetan, bai eta Osasunari buruzko azaroaren 23ko10/1990 Foru Legean ere.

4.2. Zentroak dokumentazio klinikoko bere sistema egokituko du Nafarroako Foru Komunitateko ospitaleetako historia klinikoari buruzko irizpide eta arauetara.

BOSGARRENA. JARDUERAREN HELBURUAK

5.1. Osasun zerbitzuen kudeaketa-kontratu honen helburu bezala, Ubarmin Klinikak bere gain hartzen duen jarduera orokorraren aurreikuspena, urteko orduen kopuruari dagokionez, I. eranskinean ezarritakoa da.

SEIGARRENA. HELBURU KUALITATIBOAK.

6.1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaileei eskura dauden baliabideek bideratzen duten kalitate handieneko arreta emanen zaie. Zentroak bere kalitate politika propioa ezarriko du, bere Kalitate Planaren arabera. Plan hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kalitatea Planaren barruan dago. Funtsean, ondoko helburuak bete nahi dira haren bitartez:

a) Bezeroaren beharra, sistemaren erdigunea baita, betetzea, eta bereziki gerorapen aldiak murriztea.

b) Kalitate zientifiko eta teknikoaren bermatzea eta hobekuntza etengabeko prozesuak ezar daitezkeen sustatzea, arazoei antzemanaz eta auto-ebaluazio sistemak erabiliz.

c) Kudeaketa klinikoko eredua bultzatzea.

d) Osasun laguntzaren jarraikortasuna eta pertsonalizazioa bermatzea sistema osoan eta laguntza prozesu osoan.

e) Ikerketa politika aktibo bat eta prestakuntza etengabea bultzatzea.

f) Kalitate planaren kudeaketa hobetzeko helburuei eusten dieten informazio sistemak garatzea.

6.2. 1999rako, II. eranskinean jasotakoak dira kudeaketa-kontratuaren helburu kualitatiboak, zentroak urtean zehar erdietsi nahi duen helmugaren adierazpide direnak.

6.3. Zentroan, Administrazioaren maila ezberdinetatik, zerbitzuaren kalitatea ebaluatzearen, auditoriaren eta kreditazioaren arloan, behar diren jarduketak eginen dira kontratu hau bete behar duten zerbitzu guztietan (zerbitzu kliniko nahiz zerbitzu ez-klinikoak).

6.4. Kirurgiarako itxaron-zerrenda modu nominalean eta patologien arabera informatizaturik egonen da, V. eranskinean jasotako irizpideei jarraituz.

6.5. Bermatu eginen da inongo gaixok ez duela itxaron beharko sei hilabete baino gehiago ebakuntza bat egiteko, inolako prozesu eta inguruabarretan ere ez. Sei hilabete baino itxaronaldi luzeagoa jasan behar izan duten gaixorik dagoela antzemanaz gero, Laguntza Espezializatuaren Zuzendaritzak bere gain hartuko du bestelako zerbitzu propio nahiz itunduetan berehala ebakuntza eginen zaiola bermatuko duten kudeaketak egiteko ardura. Hartara, sortzen diren gastuak Ubarmin Klinikak hartzeko izan ditzakeen pizgarrietatik kenduko dira.

6.6. Kudeaketa-kontratu honetan hartzen diren konpromisoak zentzuzko profesional eta zerbitzuei jakinaraziko zaizkie, osasun zerbitzuekin kudeaketa klinikoko behar diren itunak eginez.

ZAZPIGARRENA. GASTUEN AURREKONTUA.

7.1. 1999rako, kudeaketa-kontratu hau izenpetzen duen zentroaren kudeaketa arloko gastuen aurrekontua III. eranskinean zehaztutakoa da. Bertan, 1999rako aurreikusitako gastu erreal guztien aurreikuspena ere sartuko da, bai eta zerbitzuak emateagatik Osasunbidea-Nafarroako Osa-

sun Zerbitzuaren beste zentro batzuek emaniko zerbitzuek sorturiko gastu egozketak ere.

7.2. Gastu errealen aurreikuspena Gizarte Segurantzaren kuota patronalekin kalkulatu da, % 25ean.

7.3. Halaber, gastu moduan hartuko dira instalazio horietan eginiko jardueraren arabera Ubarmin Klinikak ordaindu behar dituenak -Laguntza Anbulatorioa Koordinatzeko Zuzendariordezari dagozkionak- eta Ubarmin Klinikari funtzionalki atxikitako langileen egozketak.

7.4. Gastuen epigrafearen azpian sartzan dira, halaber, Odol Bankuak eta Nafarroako sare publikoko bestelako ospitale-zentroek emaniko zerbitzuengatik eginiko egozketak.

7.5. Inbertsioen kontzeptupeko kontusailak ez dira 1999rako kudeaketa-kontratuaren zatia izanen, emaitzen kontuaren ondorioetarako.

7.6. Farmaziako kontusaila zabaltzeko proposamen oro berariaz baimendu beharko du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Zuzendaritzak, Ubarmin Klinikako Zuzendaritzak gertatuko aldaketei buruzko azterketa zehaztuko duen txostena eman ondoren.

ZORTZIGARRENA. HIRUGARRENEI EMANIKO ZERBITZUENGATIK IZANIKO DIRUSARREREN KUDEAKETA.

8.1. Zentroak zuzenean fakturatuko die entitate berme-emaleei edo partikularrei emaniko osasun laguntza, osasun babesaren berariaz aseguratutako dagoenean edo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren babespean ez dagoenean.

8.2. Hirugarrenei laguntza emateagatik sorturiko gastuei Osasun Departamentuak onetsitako prezio publikoak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Zuzendaritzak emaniko bestelako arauak.

BEDERATZIGARRENA. ATRIBUZIOAK.

9.1. Ahalmena ematen zaio Ubarmin Klinikako kudeatzaileari produktibitatearengatik ordainsariak esleitzeko kudeaketa-kontratu honetan ezarritako helburuak lortzera orientaturiko aparteko jarduerak egiten dituzten langileei, beharrezkoa denean eta dagoen aurrekontuaren barruan.

9.2. Ahalmena ematen zaio Ubarmin Klinikako kudeatzaileari, zentroaren aurrekontuen kargura, beste zentro publiko edo/eta itundu batzuekin akordioak sinatzeko, beharrezkoa bada eta dagoen aurrekontuaren barruan, kirurgiarako itxaronaldian dauden gaixoen kopuru bat transferitzeko,

bere bitartekoekin kudeaketa-kontratu horretan itundutako itxaronaldiaren helburuak betetzeko ezintasuna aurreikusten denean.

9.3. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Zuzendaritzak Ubarmin Klinikako Kudeaketa Zuzendaritzak proposatzen dituen kreditu transferentzia guztiak tramitatuko ditu, zentroari esleitutako kapitulu eta kontusailen artean, ezarritako helburuak lortzeko, baldin eta gastu arrunta orokorrean igotzea suposatzen ez badute.

HAMARGARRENA. ZENTRO ITUNDUETARA GAIXOAK BIDALTZEAREN GAINEKO KONTROLA.

10.1. Ubarmin Klinikak bere gain hartzen du 1999an zehar baimenak emateko sistema propio bat eratzeko konpromisoa, gaixoak zentro itunduetara bidali aurretik eta osasun garraioko, oxigenoterapiako eta etxeko dialisia egiteko prestazio osagarriak, fakultatiboek agindutakoak aplikatzeko.

HAMAIKAGARRENA. KOSTUEI BURUZKO AZTERLANA.

11.1. 1999an zehar, Ubarmin Klinikak kostuei buruzko azterlan bat eginen du, Nafarroako Osasun Zerbitzua eta sareko ospitaleak ados jarri eta ezarritako metodologia orokorrari jarraituz. Azterlan horrek egiturazko gain-kostuak baldintzatzen dituzten faktoreei antzematea izanen du helburu.

HAMABIGARRENA. ZERBITZU ZENTRALEN KONPROMISOAK.

12.1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zerbitzu zentralek beren gain hartzen dute kudeaketa-kontratu honetan ezarritako helburuak garatzeko behar diren laguntza eta laguntza teknikoa emateko konpromisoa.

HAMAHIRUGARRENA. INDARRALDIA ETA BERRITZEA.

13.1. Kudeaketa-kontratu honek 1999ko urtaririlaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra izanen du indarra. Ekitaldia bukatu baino lehen, kontratua izenpetzen duten aldeek laguntza-helburuak, kalitateari buruzko adierazleak betetzea eta gertaturiko desbideratze ekonomikoak aztertuko dituzte, kudeaketa-kontratu berritzeko baldintzak ezartzeko, bidezko bada.

III. BALIABIDE BEREKIAK

(pezetak, milioitan)

Mutuak eta pribatuak	35
Bestelako dirusarrerak	4
Guztira	39

V. BALIABIDE PERTSONALAK

Fakultatibo espezialistak	23
Osasun langile tituludunak	104
Osasun langile titulugabeak	95
Administrariak	31
Zerbitzu orokorrak	44
Zuzendaritzako langileak	4
Guztira	301

VI. APLIKATZEKOAK DEN ARAU-XEDAPE-NAK

- Azaroaren 14ko 13/86 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko kontratuei buruzkoa.

- Abenduaren 26ko 8/88 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

- Azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea, Osasunari buruzkoa.

- Apirilaren 25eko 1471986 Lege Orokorra, Osasunari buruzkoa.

- Martxoaren 30eko 1371983 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuari buruzkoa.

- Azaroaren 13ko Foru Legea, Nafarroako osasun eskualdeei buruzkoa.

- Abenduaren 17ko 1680/85 Errege Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateari Insaluden funtzioak eta zerbitzuak aldatzeari buruzkoa.

- Abenduaren 28ko 1689/90 Errege Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateari Insaluden funtzioak eta zerbitzuak aldatzeari buruzkoa.

- Abenduaren 27ko 243/1985 Foru Dekretua, Nafarroako osasun laguntza espezializatua antolatzen duena.

- Urtarrilaren 31ko 37/1986 Foru Dekretua, 243/1985 Foru Dekretua osatzen duena.

- Abenduaren 28ko 363/1990 Foru Dekretua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura organikoa ezartzen duena.

- Irailaren 30eko 3000/1991 Foru Dekretua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko egitura organikoa aldatzen duena.

- Azaroaren 4ko 495/1991 Foru Dekretua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura organikoa osatzen duena.

- Azaroaren 4ko 496/1991 Foru Dekretua, Ubarmin Klinikako gobernu organoen osaketa eta funtzionamendua onesten duena.

- Osasun kontseilariaren 1992ko ekainaren 23ko Foru Agindua, Ubarmin Klinikaren egitura organikoa birmoldatu eta haren oinarritzko unitate organikoak garatzen dituena.

- Abuztuaren 30eko 251/93 Legegintzazko Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.

- Urriaren 22ko 1854/1993 Errege Dekretua, hemodonazioa eta odol bankuetan, oro har, bete beharreko beharkizun teknikoak eta gutxieneko baldintzak ezartzen dituena.

- Azaroaren 22ko 347/93 foru Dekretua, ONOZen sartzea eta lanpostuak betetzea arautzen duena.

- Otsailaren 28ko 2/1994 Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duena.

- Urriaren 20ko 11/92 Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia arautzen duena. Urriaren 30eko 131. NAO.

- Irailaren 4ko 297/1995 Foru Dekretua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura organikoa aldatzen duena.

- Azaroaren 13ko 521/1995 Foru Dekretua, Osasun Departamentuaren egitura organikoa aldatzen duena.

- Abenduaren 26ko 604/1995 Foru Dekretua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura organikoa aldatzen duena.

- 1996ko otsailaren 7ko Ministerio Agindua, odol-emaileak baztertzeko irizpideak eta baldintzak zehazten dituen urriaren 22ko 1854/1993 Errege Dekretua garatzen duena.

- Irailaren 26ko 406/1996 Foru Dekretua, Osasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena.

- Baimen eta oporren erabilera, Langileen Estatutuan eta Anbulatorioen Zuzendaritzaren barneko zirkularretan oinarritua.

Kapitulu ekonomikoen araberako laburpena.

Gastuak		Dirusarrerak	
Kontzeptua	Pezetak, milakotan	Kontzeptua	Pezetak, milakotan
Langile gastuak	1.511.332	Tasak, prezio publikoak eta bestelako dirusarrerak	38.800
Gastu arruntak, ondasun eta zerbitzuenak	816.000		
Transferentzia arruntak	22.200		
Inbertsio errealak	98.500		
Gastuak, guztira	2.448.032		38.800

Kontzeptua

Pezetak, milakotan



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--